

EZ OHIKO ETA URGENTZIAZKO UDALBATZARRA

Errezilgo Udaletxeko Pleno Aretoan, 2008ko abuztuaren hemezortzian, eguerdiko hamabiak direnean, bildu dira, ez ohiko eta urgentziako Udalbatzarra egiteko ondoko Korporatiboak:

Iñaki Oiartzabal Zinkunegi-Alkate Lehendakaria

Joseba Iñaki Labaka Beristain-Zinegotzia.

Luis Berrondo Lanceta-Zinegotzia.

Luis Arzallus Amenabar Zinogotzia, Jose Luis Albisua Lasa Zinegotzia eta Iosune Arruti Eizagirre zinegotziak ez dira bilkura honetan egongo arrazoi justifikatuengatik. Bittor Astigarraga Zugasti zinegotzia ez da bilkura honetan egongo arrazoi justifikatuengatik.

Idazkari lanetan, Leire Arteaga Zumeta Udaletxeko Bitarteko Idazkari Kontuhartzailea.

Alkateak hasera eman dio bilkura honi ondoko gai zerrendaren arabera:

1.- UDALBATZARRAREN URGENTZIAREN AITORPENAREN ONARPENA.

Alkateak hitza hartu du eta proposatu du udalbatzarraren urgentzia aitortzea. Proposamena aho batez onartu dute.

2.- ERREZILGO HIRI ANTOLAKETAKO ORDEZKO ARAUAK BERRIKUSTEKO KONTRATUA ESLEITZEKO BALDINTZA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ADJUDIKAZIO ERIZPIDEEN ALDAKETA ETA ESLEIPEN JARDUERAN PROPOSAMENAK AURKEZTEKO EPEAREN ZABALPENA.

Alkateak hitza hartuz gaiaren aurrerakinak esan ditu. 2008ko ekainaren bostean egindako udalbatzarrean erabaki zen Errezilgo Hiri Antolaketako Ordezko arauen aldaketa Hiri Antolaketako Plan Orokorraren formulazioarekin egiteko lanen kontratazioa arautuko duten baldintza ekonomiko administratibo partikularrak eta teknikoak onartzea eta proposamenak aurkezteko deialdia egitea. 2008ko abuztuaren 4an, 147 zbkia zuen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen proposamenak aurkezteko deialdiaren iragarkia. 2008ko abuztuaren hamalauan Arkitektoen elkargoak alegazioak tarteratu dizkio deialdi horri, hori arautzen duten baldintza ekonomiko administratibo partikularrak zuzenbidearen aurkakoak direlako eta arkitektoen eskubideak urratzen dituztelako.

Alegazio horiei txostena egin die Udaleko bitarteko Idazkari kontuhartzaileak. Txosten horren arabera zenbait alegazio onartu beharrekoak dira, beste batzuk onartzea komeni da eta besteak ezetsi.

Proposatzen da, Errezilgo Hiri Antolaketako Ordezko arauen aldaketa Hiri Antolaketako Plan Orokorraren formulazioarekin egiteko lanen kontratazioa arautuko duten baldintza ekonomiko administratibo partikularren dokumentoaren V, XV, XVI, XVII eta XVIII paragrafoak aldatzea.

Ondorengo erabakiak hartzeko bozketa egitea proposatu du Alkateak:

Lehena.- Errezilgo Hiri Antolaketako Ordezko arauen aldaketa Hiri Antolaketako Plan Orokorraren formulazioarekin egiteko lanen kontratazioa arautuko duten baldintza ekonomiko administratibo partikularren dokumentoaren V, XV, XVI, XVII eta XVIII. Paragrafoak aldatzea.

Bigarrena.- Proposamenak aurkezteko deialdiaren epea luzatzea hogeita hamar egun naturaletan, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hirugarrena.- Erabaki hau Udaletxeko iragarkien taulan, web ofizialean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Laugarrena.- Euskadi-Nafarroako arkitektoen elkargo ofizialari jakineraztea.

Bozketa egin dute ondoko ondorioekin: aldeko botoak Iñaki Oiartzabal Zinkunegi, Joseba Iñaki labaka Beristain eta Luis Berrondo Lanceta kontrako botorik ez dago eta abstentziorik ez dago. Beraz, akordioa onartua gelditzen da.

Beste gairik ez dagoenez, eguerdiko ordubatak direnean, Alkateak ez ohiko eta urgentziazko udalbatzar hau amaitutzat ematen du eta nik, Idazkari gisa Akta jaso dut.

Alkateak

B. Idazkari Kontuhartzaileak